

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 508/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Behin betiko onestea Bernedoko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugaketaren aldaketa

Abuztuaren 24ko 511/2021 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onespena eman zitzaion Bernedoko udalerrirako ondasun higiezinaren zergari loturiko hiri lurzoruen mugaketaren aldaketari, Urarteko herrigunearen inguruan Bernedoko eta Trebiñuko Konderriko udalerrien arteko mugaketa behar bezala jasotze aldera.

Bernedoko Udalak 2021eko abuztuaren 26ko idazki baten bidez jakinarazi zuen ez zuela alegaziorik aurkeztuko behin-behineko onespeneren aurka.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, erantsitako planoen arabera, Bernedoko udalerrirako ondasun higiezinaren zergari loturiko hiri lurzoruen mugaketaren aldaketa, Urarteko herrigunearen inguruan Bernedoko eta Trebiñuko Konderriko udalerrien arteko mugaketa behar bezala jasotze aldera.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da hamabost egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Bernedoko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluen 5. apartatuan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA